

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

### DIPUTATU NAGUSIAREN SAILA

**324/2019 Foru Dekretua, uztailaren 5ekoa, Diputatu Nagusiarena. Honen bidez Arabako Foru Aldundiaren sailen egitura zehazten da 2019-2023 legealdirako**

Arabako Foru Aldundiaren antolaketa, funtzionamendu eta lege araubidearen abenduaren 18ko 52/1992 Foru Arauak, 19.5 artikuluan, diputatu nagusiari aitortzen dio aldundiko sailak eta haien eskumenak zehazteko ahalmena.

Arabako Batzar Nagusiak berrituz eta diputatu nagusia hautatuz beste agintaldi bati ekiten zaio foru erakundeetan, eta haiek gobernatu eta kudeatzeko, hala funtzionamenduan nola antolaketan, ezinbestekoa da ondoren adierazten diren neurriak hartzea.

Horregatik guztiagatik, eta aitortzen zaizkidan eskuduntzak baliatuz, hau

#### XEDATZEN DUT

Lehenengoa.

Sail hauek egituratuko dute Arabako Foru Aldundia:

- Diputatu Nagusiaren Saila
- Ekonomia Garapenaren, Berrikuntzaren eta Demografia Erronkaren Saila
- Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren Saila
- Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saila
- Lurralde Orekaren Saila
- Bide Azpiegituren eta Mugikortasunaren Saila
- Gizarte Politiken Saila
- Nekazaritza Saila
- Kultura eta Kirol Saila
- Ingurumen eta Hirigintza Saila

Bigarrena.

Hona hemen Diputatu Nagusiaren Sailaren eginkizunak eta eskumenak:

- Erakundea ordezkatzea
- Gobernuaren jarduna zuzentzea eta sailak koordinatzea
- Gizarte eta erakunde harremanak
- Gobernuaren bozeramailletza eta komunikazioaren ardura
- Legezkotasun kontrola eta fede publikoa
- Lege aholkularitza eta abokatu defentsa
- Batzar Nagusiekiko harremanak
- Miñoiak

- Herritarren Arreta, Erregistro Orokorra eta ALHAO administratzea
- Berdintasunerako politika
- Immigrazio politika
- Lankidetzaren
- Giza eskubideak
- Gardentasuna eta herritarren parte-hartzea
- Lurralde Historikoa kanpoan ezagutzera ematea
- Euskara politikak
- Ordenamendu juridikoan adierazitako gainontzekoak

Hirugarrena.

1. Hona hemen Ekonomia Garapenaren, Berrikuntzaren eta Demografia Erronkaren Sailaren eginkizunak eta eskumenak:

- Teknologia garapena, berrikuntza eta enpresa lehiakortasuna
- Ekonomia sustapena eta enpresa lankidetzaren
- Lurraldea sustatzea eta garapen logistikoa
- RSI3 estrategia lurraldean zabaltzea
- Industria azpiegiturak eta zerbitzuak garatzea
- Enpresa ekintzaitza
- Nazioartekotzea eta kanpo merkataritza
- Ekonomia garapen jasangarriko estrategiak despopulatu arriskuari aurre egiteko
- Ordenamendu juridikoan adierazitako gainontzekoak

2. Ekonomia Garapenaren, Berrikuntzaren eta Demografia Erronkaren Sailari atxikitzen zaizkio ARABA GARAPEN AGENTZIA SA eta NATURGOLF SA foru sozietate publikoak.

Laugarrena.

1. Hona hemen Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren Sailaren eginkizunak eta eskumenak:

- Prestakuntza eta enplegu plan eta programak
- Autonomoei laguntzea
- Txikizkako merkataritza garatzea eta laguntzea
- Turismoa eta eskulangintza
- Prestakuntza jarduerak langileak kualifikatzeko, enplegua lortzeko eta LHko ikastetxeak hobetzeko
- Enplegu eta prestakuntza planak garatzeko lankidetzaren sustatzea
- Funtzio publikoa
- Langileak euskalduntzea
- Zerbitzu orokorrak
- Informatika

- Arkitektura
- Ordenamendu juridikoan adierazitako gainontzekoak

2. Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren Sailari atxikitzen zaio ARABAKO KALKULU GUNEA SA foru sozietate publikoa.

Bosgarrena.

Hona hemen Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailaren eginkizunak eta eskumenak:

- Zerga administrazioa
- Ekonomia ituna
- Finantzak
- Kontu hartzea eta kontrola
- Aurrekontuak
- Kontabilitatea
- Ondarea
- Estatistikak eta ikerketak
- Europako gaiak
- Erreklamazio ekonomiko-administratiboak
- Ordenamendu juridikoan adierazitako gainontzekoak

Seigarrena.

Hona hemen Lurralde Oreka Sailaren eginkizunak eta eskumenak:

- Obra eta Zerbitzuen Foru Plana eta Inbertsioen Foru Plana
- Foru eta Inbertsio Plana
- Toki erakundeak finantzatzea
- Toki erakundeei laguntza eta aholkuak ematea
- Babes zibila
- Suteak prebenitzea eta itzaltzea
- Ordenamendu juridikoan adierazitako gainontzekoak

Zazpigarrena.

1. Hona hemen Bide Azpiegituren eta Mugikortasunaren Sailaren eginkizunak eta eskumenak:

- Errepideen plangintza, proiektuak, zaintza eta ustiaketa
- Desjabetzeak
- Garraioak
- Ordenamendu juridikoan adierazitako gainontzekoak

2. Bide Azpiegituren eta Mugikortasunaren Sailari atxikitzen zaio ARABAKO BIDEAK-VIAS DE ÁLAVA SA foru sozietate publikoa.

Zortzigarrena.

1. Hona hemen Gizarte Politiken Sailaren eginkizunak eta eskumenak:

- Hirugarren adina
- Ezinduak
- Haurrak eta familia
- Oinarrizko gizarte zerbitzuak
- Prestazio ekonomikoak
- Ordenamendu juridikoak adierazitako gainerakoak

2. Gizarte Politiken Sailari atxikitzen zaizkio Gizarte Ongizaterako Foru Erakundea eta INDESA 2010 SL foru sozietate publikoa.

Bederatzigarrena.

Hona hemen Nekazaritza Sailaren eginkizunak eta eskumenak:

- Nekazaritza
- Abeltzaintza
- Nekazaritza garapena eta esperimentazioa
- Landa garapena eta Europako laguntzak
- Mahastizaintza eta enologia
- Mendiak, baso aprobetxamenduak eta zerbitzuak
- Arrantza eta ehiza baliabideak kudeatzea
- Nekazaritzako azpiegitura hidraulikoak
- Ordenamendu juridikoan adierazitako gainontzekoak

Hamargarrena.

1. Hona hemen Kultura eta Kirol Sailaren eginkizunak eta eskumenak:

- Agiritegi eta liburutegiak
- Museoak
- Zaharberritzeak
- Kultura Etxea
- Hezkuntza sustatzea eta kultura zabaltzea
- Argitalpenak
- Historia, arte eta arkitektura ondarea
- Kirola
- Gazteria
- Ordenamendu juridikoan adierazitako gainontzekoak

2. Kultura eta Kirol Sailari atxikitzen zaio GAZTERIAREN FORU ERAKUNDEA erakunde autonomoa.

Hamaikagarrena.

1. Hona hemen Ingurumen eta Hirigintza Sailaren eginkizunak eta eskumenak:

- Uraren ziklo integrala, nekazaritzako azpiegitura hidraulikoak izan ezik
- Ingurumena eta paisaia
- Natura zaintzea
- Naturguneak
- Energia berriztagarriak
- Biodibertsitatea eta fauna eta flora espezie babestuenak
- Lurralde plangintza eta informazioa
- Hirigintza kudeaketa eta diziplina
- Ordenamendu juridikoan adierazitako gainontzekoak

2. Ingurumen eta Hirigintza Sailari atxikitzen zaio Arabako Ur Partzuergoa.

Hamabigarrena.

Sail bakoitzari egokitu zaizkion arlo eta eginkizunekin bat etorritik, Foru Gobernu Kontseiluak sailen oinarriko egitura onetsiko du eta, sail interesdunek hala proposatuta, egitura organikoari buruzko dekretuak onetsiko ditu.

Hamahirugarrena.

1. Hurrengo apartatuan xedatutakoa gorabehera, egungo zuzendaritza, zerbitzu, atal eta bulegoek orain arte esleituta izan dituzten eginkizunak beteko dituzte.

2. Dena den, aldaketa hauek egiten dira horien atxikipenean, mendekotasun organikoan eta izenetan:

2.1. Diputatu Nagusiaren Sailari atxikitzen zaio Euskararen Foru Zerbitzua.

2.2. Ekonomia Garapenaren, Berrikuntzaren eta Demografia Erronkaren Sailari atxikitzen zaio Garapen Ekonomikoaren Zuzendaritza eta haren menpeko zerbitzua.

2.3. Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailari atxikitzen zaio Arabako Lege eta Administrazio Erakundea.

2.4. Lurralde Oreka Sailari atxikitzen zaio Lurralde Oreka Zuzendaritza eta haren menpeko zerbitzu eta atalak.

Hamalagarrena.

Sail etako egitura organikoak onetsi ondoren, Foru Gobernu Kontseiluak baliabide ekonomikoaren eta foru langileen berraxikitzea onartuko du, Foru Dekretu honen bidez haien eginkizunak sail desberdinetan banatu diren administrazio unitateen kasuan.

Hamabosgarrena.

Sail etako foru diputatuei dagokie, indarrean dagoen legediarekin bat etorritik, beren sailei atxikitako erakunde autonomoak eta foru sozietate publikoak zuzentzea.

Hamaseigarrena.

Foru Gobernu Kontseiluak izan ezik, foru administrazioko gainontzeko kide anitzeko organo guztiek egun dituzten kideekin jarraituko dute beren eskumenekoak diren gaiak jorratzen. Dena

den, kontuan hartu behar dira Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legeak 10. artikuluan Foru Gobernu Kontseiluari aitortzen dizkion ahalmenak.

Hamazazpigarrena.

Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailari dagokio foru dekretu honetan ezarritakoa betetzeko egin behar diren aurrekontu eragiketak egitea, baita sail berrien kodifikazioa eta sailkapen organiko eta ekonomikoa egokitzea ere, ahal den neurrian orain artekoak errespetatuz.

#### XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Indarrik gabe uzten dira honako hauek: Diputatu nagusiaren uztailaren 3ko 132/2015 Foru Dekretua, uztailaren 6ko 136/2015 Foru Dekretua, uztailaren 8ko 139/2015 Foru Dekretua, otsailaren 8ko 26/2016 Foru Dekretua, bai eta foru dekretu honetan ezarritakoaren kontra doazen maila bereko edo txikiagoko gainerako xedapen guztiak ere.

#### AZKEN XEDAPENA

ALHAOn argitaratzen den egunean jarriko da indarrean foru dekretu hau.

Vitoria-Gasteiz, 2019ko uztailaren 5a

*Diputatu nagusia*

**RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE**